

Biteri Ikastetxe Nagusiko ikasturte hasierako ekitaldia

2015/10/29

Gaur, urriak 29 osteguna, 19:30tan, Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoko Areto Nagusian 2015/2016 ikasturte hasierako Ekitaldi Akademikoa ospatuko da. Biteriko egoiliarrez gain, beraien gurasoak ere bertan egongo dira. Gainera, Ikastetxe Nagusiko proiektuan inplikazio handia izan duten hiru pertsona omenduko dituzte, zeintzuk diren, ekitaldian bertan jakingo dugu. Bukatzeko, Mondragon Unibertsitateko errektorearen hitzak entzungo ditugu eta Aitziber Eizaguirre, egoiliar ohiak eta Tumaker enpresako diseinatzaile industrialak, "Troublemakers: alborotadores de empresas" gaiari buruz hitz egingo du.

